

LEKUALDATZE-LEHIAKETA AUTONOMIKOA 2019-2020

2019ko urriaren 29an Nafarroako Aldizkari Ofizialean irakasle kidegoetako lekualdatze lehiaketa argitaratu da. Aurten Nafarroa barruko lekualdatzea da.

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: [urriaren 30etik azaroaren 20 arte](#).

Lanpostu ezabatzeko 5 egun balioduneko epean NAO n argitaratu eta biharamunetik hasiz.


HELBURUA	MOTAK
Behin-betiko lanpostua lortu	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomikoa: <ul style="list-style-type: none"> - Bi urtetik behin. - Nafarroan bakarrik lehiatzen da. - Borondatez parte hartu daiteke lanpostu finkoa izanda, edozein izanik ere lanpostu horretan emandako denbora. - Estatu mailakoa: <ul style="list-style-type: none"> - Bi urtetik behin. - Nafarroan edo erkidego batetik bestera ere lehiatu daiteke. - Parte hartzeko gutxienez 2 urte behar dira azkeneko behin-betiko lanpostuan.

1.- KRONOGRAMA

HILABETEA	ZER
Urria-Azaroa	Ebazpena (NAO)
Urria-Azaroa	Eskaerak aurkeztu (15 egun baliodun)
Urtarrila-Otsaila	Behin-behineko merezimenduen baremoa (10 eguneko subsanazio epea)
Otsaila	Behin-behineko bakanteak
Martxoa-Apirila	<ul style="list-style-type: none"> - Behin-behineko esleipena (5 eguneko erreklamazio epea). Borondatez parte hartzen dutenek parte hartzeari uko egin diezaiokete. Eskaera guztiei egiten diete uko. - Behin-betiko merezimenduen baremoa: hilabeteko epea gorako helegitea jartzeko.
Maiatza-Ekaina	Behin-betiko esleipena: hilabeteko epea gorako helegitea jartzeko.
2020ko irailaren 1a	Behin-betiko lanpostu-hartzea

Argitalpen guztiak Hezkuntza Departamentuko web orriaren bidez egingo dira: www.educacion.navarra.es

2.- PROZESUA



3.- PARTE-HARTZEA

MOTA	NORTZUK?
Borondatezko parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Behin-betiko destinoa dutenak. - Zerbitzu berezi edo eszedentzia berezietan daudenak. - Eszedentzia boluntarioan daudenak. - Suspentsio aitortuan daudenak. - Lehentasunezko eskubide bat gauzatu nahi dutenak.
Derrigorrezko parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Behin-behineko destinoa dutenak. - Praktikaldian dauden funtzionarioak (esleipena EPEko nota kontutan hartuta egingo da). - Derrigorrezko eszedentzian daudenak. - Kanpoko plazak esleituak izan eta berriz itzuli behar dutenak. - Haien behin-betiko destinoa galdu dutenak (sententzia bidez edo lanpostua ezabatzea eskatu dutelako), ebazpena dela medio. - Zerbitzu berezi edo eszedentzia berezian daudenak (behin-behineko destinoarekin).

Derrigorrez parte hartzen dutenentzako oharrak:

- Praktiketako funtzionarioek lehenengo behin-betiko lanpostua EPEa gainditutako berezitasun eta hizkuntzan eskuratu behar dute derrigorrez. Gainera borondatez IV. Eranskineko plazak eskatu ahal dituzte.
- 2007 eta gero oposizioak gainditu dituztenei edozein destino emango zaie haien hizkuntza eta berezitasunean. Gainera, borondatez IV. Eranskineko plazak eskatu ahal dituzte.

Ingelesa, frantsesa edo euskaratik oposizioak gainditu zituztenek dagokion hizkuntza eskakizuna duten beste berezitasunetako lanpostuak eskatu ahalko dituzte baldin eta berezitasuna duten.

- 2007 baino lehen oposizioak gainditu zituztenek dituzten berezitasun guztietako lanpostuak eskatu beharko dituzte edozein hizkuntzan.

Inoiz ez dira derrigorrez esleituko hurrengo lanpostuak:

- Maisu-maistren kidegoan: Helduentzat Pedagogia Terapeutikoa-Lehen Hezkuntza-Ingelesa-Frantsesa-Vascuence, PT lan bidezko ikaskuntza gelatan, Minoriak, Entzumena eta Lengoaia eskualdean, DBHko 1. eta 2. mailako lanpostuak, institutueto Pedagogia Terapeutikoko lanpostuak, lanpostu ibiltariak, kartzelako lanpostuak eta programa eleanitzetako lanpostuak.
- Bigarren Hezkuntzako Irakasle eta Katedradunen kidegoetan eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoan: arloko lanpostuak eta atzerriko hizkuntzetan perfila dutenak.

4.- LANPOSTUA EZABATZEKO ESKAERA (plaza -1)

Lekualdatze lehiaketaren deialdiarekin batera, behin-behineko plantillak eta lanpostuak ezabatzeko eskaeraren prozedurak argitaratu dira. -1 ateratzen diren lanpostuetan eskatu daiteke lanpostua ezabatzea. Horretarako **epea urriaren 30etik irailaren 6ra izango da.**

OSO GARRANTZITSUA: Lanpostua ezabatzeko eskatu aurretik , Hezkuntzako langileekin hitzordua eskatu kasu bakoitza aztertzeko (848 42 32 98- 848 42 65 66 – 848 42 60 69 – 848 42 62 96).

LEHENTASUNEZKO ESKUBIDEAK:

MOTAK	NORTZUK?
Ikastetxerako lehentasunezko eskubidea	- Ebazpen bat dela medio behin-betiko destinoa galdu dutenek. - Bigarren Hezkuntzako Irakasle eta Katedradunen kasuan eta Lanbide Heziketako - Irakasle Teknikoen kasuan, berezitasun berria eskuratu dutenek. Behin-betiko gaztelaniako lanpostua duten eta EGA edo baliokidea den titulua dutenek.
Udalerrri edo eskualderako lehentasunezko eskubidea	- Behin-betiko destinoa galdu dutenek haien lanpostua aldatu edo desagertu delako. - Administrazioan beste lanpostu bat betetzeagatik haien lanpostua galdu dutenek. - Atzerriko zentroetan lanean aritu direnek. - Sententzia bat betearazteagatik edo helegite administratibo baten ondorioz lanpostua galdu dutenek. - Behin-betiko ezintasuna zutelako erretiratuak zeuden irakasleek lanari berriz ekiten diotelarik.

Ikastetxerako eskubide preferentea udalerrri edo eskualdearen gainekoa da.

5.- ESKAERAK

Eskaerak aurkezteko modua

Instantzia bakarra aurkeztuko da. Eskatera orri bat baino gehiago entregatu ezker, azkenekoa bakarrik hartuko da kontuan. Instantziarekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

A.- Praktiketako funtzionarioek EPEan ateratako notarekin parte hartzen dute, ez dute merezimendurik aurkeztu behar (soilik atzerriko hizkuntzen perfila duen plaza bat eskatu nahi badute).

B.- Lekualdatze-lehiaketan lehenengoz parte hartzen duten funtzionarioek, instantziarekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute: 3, 4.3, 5, 6.1, 6.2, 6.3, 6.5 eta 6.6 ataletako merituak.

C.- 2010-2011 ikasturtean eta hortik aurrera lekualdatze lehiaketaren batean parte hartu duten izangaiei, azken lekualdatze lehiaketan lortutako behin-betiko puntuazioa konfirmatuko zaie (praktiketako funtzionarioei izan ezik). Meritu baremoaren I atala ofizioz baloratuko zaie. Azken lekualdatze lehiaketaren ondoren lortutako merituak gehitu ahal izango dituzte.

D.- Azken lekualdatze lehiaketako puntuazioa konfirmatu nahi ez dutenek, ados ez daudelako edo azken deialdiaren aurreko merituak gehitu nahi dituztelako, espresuki adierazi beharko dute instantzian. Funtzionario hauek instantziarekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute: 3, 4.3, 5, 6.1, 6.2, 6.3, 6.5 eta 6.6 ataletako merituak.

Dokumentazioa originala edo konpultsatutako fotokopia izango da, instantziak aurkezteko epea baino lehen bildutakoa. Erregistro ofizial batean aurkeztu beharko da. *Correos* bulego batean aurkeztekotan sobre irekiarekin egingo da, data eta zigilua jar diezaioten. Giza baliabideen Atala-era zuzendu behar da dokumentazioa.

Parte-hartze telematikoa

Aplikazio telematikoaren bidez beteko dira instantziak. Bete eta sinatu ondoren aplikazio berdinen bidez bidaliko dira.

Lanpostuak

Gehienez 300 eskaera jarriko dira. Nahien arabera lanpostuak ordenatuko dira.

Eskatera bakoitzak ikastetxea edo zentroaren kodea eta berezitasunaren kodea zehaztu beharko ditu beti. Soilik beharrezkoa denean euskarako kodea, ingeleseko edo ibiltaritza zehaztuko dira.

6.- MERITUAK

MERITUAK	DOKUMENTAZIOA*
<p>1. Antzinasuna: toperik gabe</p> <p><u>1.1. Ikastetxeko antzinasuna</u></p> <p>1.1.1. Ikastetxean behin-betiko funtzionario bezala betetako antzinasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. eta 2. urteengatik: 2 puntu urte bakoitzeko /0,1666 hilabete bakoitzeko - 3. urtearengatik: 4 puntu/ 0,3333 hilabete bakoitzeko - 4. eta hurrengo urteengatik: 6 puntu/ 0,5 hilabete bakoitzeko <p>1.1.2. Ikastetxean behin-behineko funtzionario bezala betetako antzinasuna</p> <p>Funtzionarioak bere lehenengo behin-betiko destinotik borondatez parte hartzen duelarik 1.1.1. atalari puntu hauek gehitzen zaizkio. 2 puntu urteko/ 0,1666 hilabeteko</p> <p>1.1.3. Bereziki zailak diren lanpostuak</p> <p>1.1.1. eta 1.1.2. ataletan lortutakoari puntuak gehitzen zaizkie 2 puntu urteko/ 0,1666 hilabeteko</p> <p><u>1.2 Kidegoko antzinasuna</u></p> <p>1.2.1. Zerbitzu aktiboan emandako denbora: 2 puntu urteko/ 0,1666 hilabete bakoitzeko</p> <p>1.2.2. Kidegoaren maila berean edo altuagoa den mailan betetako zerbitzuak: 1,5 puntu urteko/ 0,125 hilabete bakoitzeko</p> <p>1.2.3. Kidegoaren maila baino baxuagotan betetako zerbitzuak: 0,75 puntu urteko/ 0,0625 hilabete bakoitzeko</p>	1
<p>2. Katedradun Kidegokoa izatea 5 puntu</p>	1
<p>3. Meritu akademikoak (Gehienez 10 puntu)</p> <p><u>3.1. Doktoretzak, postgraduak eta ez-ohiko sariak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> 3.1.1. Doktore titulua edukitzeagatik 5 puntu 3.1.2. Master ofizial bakoitzarengatik 3 puntu 3.1.3. Nahikotasun ikertzailea edukitzeagatik 2 puntu 3.1.4. Ez-ohiko saria lortzeagatik puntu 1 <p><u>3.2. Beste ikasketa unibertsitarioak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> 3.2.1. Gradu ikasketak 5 puntu bakoitzarengatik 3.2.2. Lehen zikloko ikasketak. 3 puntu bakoitzarengatik 3.2.3. Bigarren zikloko ikasketak. 3 puntu bakoitzarengatik <p><u>3.3. Erregimen bereziko ikasketak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> a) C2 mailako hizkuntza titulu bakoitzarengatik: 4 puntu b) C1 mailako hizkuntza titulu bakoitzarengatik: 3 puntu c) B2 mailako hizkuntza titulu bakoitzarengatik: 2 puntu d) B1 mailako hizkuntza titulu bakoitzarengatik: puntu 1 e) Lanbide Heziketako Goi Mailako, Kiroletako Goi Mailako edo Diseinu eta Arte Plastikoetako Goi Mailako titulu bakoitzarengatik: 2 puntu f) Dantza edo Musikako titulu Profesional bakoitzarengatik: 1,5 puntu 	2
<p>4. Zuzendaritza karguak eta beste funtzioak betetzea (gehienez 20 puntu)</p> <p>4.1. <u>Zuzendari izateagatik</u> 4 puntu urteko /0,3333 hilabete bakoitzeko</p> <p>4.2. <u>Zuzendari orde, ikasketa burua, idazkaria edo antzekoengatik</u> 2,5 puntu urteko /0,2083 hilabete bakoitzeko</p> <p>4.3. <u>Beste irakasle funtzioak (gehienez 5 puntu)</u></p> <p>Haur eta Lehen Hezkuntzako ziklo koordinatzaile, DBHletan arloko koordinatzaile, departamentu buru, formakuntza aholkulari, hezkuntza orientazioko zuzendari edo arduraduna, laguntza taldeko koordinatzaile, Ingelesko ikaskuntza programetako arduraduna, CREENAko arloko arduraduna edo lantaldeetako koordinatzailea, helduen hezkuntzako eskualde edo arloko koordinatzaile zein arduradun eta tutore izatea (2006ko maiatzaren 24tik aurrera). puntu 1 urteko /0,0833 hilabete bakoitzeko</p>	1 1 1 2

5. Formakuntza (gehienez 10 puntu)	
5.1. <u>Gainditutako formakuntza jarduerak (gehienez 6 puntu)</u> 0,1 puntu hamar orduengatik	2
5.2. <u>Emandako formakuntza jarduerak (gehienez 3 puntu)</u> 0,1 puntu hamar orduengatik	2
5.2. <u>Kidego bereko beste berezitasunengatik</u> 1 puntu bat bakoitzarengatik	1
6. Bestelako merituak (gehienez 15 puntu)	2
6.1. <u>Argitalpenak</u> :(8 puntu):	
a) Liburuak (inprimatuta zein euskarri elektronikoan)	
- Egile bakarra, asko jota <u>puntu bat</u>	
- 2 egile, asko jota <u>0,5 puntu</u>	
- 3 egile, asko jota <u>0,4 puntu</u>	
- 4 egile, asko jota <u>0,3 puntu</u>	
- 5 egile, asko jota <u>0,2 puntu</u>	
- 5 egile baino gehiago, asko jota <u>0,1 puntu</u>	
b) Aldizkariak (inprimatuta zein euskarri elektronikoan)	
- Egile bakarra, asko jota <u>0,2 puntu</u>	
- 2 egile, asko jota <u>0,1 puntu</u> .	
- 3 egile edo gehiago, asko jota <u>0,05 puntu</u>	
6.2. <u>Hezkuntzarekin zerikusia duten</u> erkidego, estatu edo nazioarteko hezkuntza administrazioek emandako <u>sariak</u> : <u>Gehienez 2,5 puntu</u>	2
6.3. <u>Meritu artistiko eta literarioak</u> : <u>Gehienez 2,5 puntu</u>	1
6.4. Nafarroan Hezkuntzako ikuskari izatea edo administrazioan izandako <u>atalburutzak</u> eta <u>bulego burutzak</u> : <u>1,5 puntu urteko/ 0,12 puntu hilabete bakoitzeko</u>	2
6.5. 2007 urtetik aurrera <u>oposizio-lehiaketetan epaimahaletan</u> parte hartzea: <u>Partehartze bakoitzarengatik 0,25 puntu</u>	2
6.6. Bigarren Hezkuntzako Masterreko edo irakasle graduko ikasketak egiten dituzten <u>praktikako ikasleen tutore izateagatik</u> : <u>Bakoitzeko 0,1 puntu</u>	2
6.7. <u>Euskarako Gaitasun Agiria</u> edukitzeagatik: <u>3 puntu</u>	2

***DOKUMENTAZIOA:** 1.- Hezkuntza Departamentuak ofizioz gehitzen ditu. 2.- Parte-hartzaileek eraman beharrekoa.

ANEXOAK EBAZPENA 3615/2019, urriaren 24koa, lekualdatzearen deialdia arautzen duena.

- ANEXO I: Puntuazioa: baremoa. zenbat balio du formakuntzak, ikastetxeko antzinatasuna; ANEXO II: Haur eta Lehen hezkuntza ikastetxeen, herrien eta eskualde bakoitzaren kodeak; ANEXO III: DBH-Batxilergo eta LH ikastetxeen, herrien eta eskualde bakoitzaren kodeak; ANEXO IV: Espezialitate bakoitzaren kodeak; ANEXO V: Derrigorrez esleituko ezin diren plaza edo lanpostuak.

ANEXOAK: EBAZPENA 3616/2019 urriaren 24koa , ikastetxeen zonifikazioa eta postuak azaltzen duena .

- ANEXO II: Eskainitako plazak.

INFORMAZIO GUZTIA HURRENGO ESTEKAN AURKITUKO DUZUE:

Ebazpena: www.educacion.navarra.es, 3615/2019 Ebazpena, urriaren 24koa, lekualdatzearen deialdia arautzen duena.

Tramitazio orria: https://www.navarra.es/home_es/ServiciosEmpleado/ficha/16840/Concurso-de-traslados-de-ambito-autonomico-para-el-personal-funcionario-de-los-cuerpos-docentes-no-universitarios-2019-2020

TELEFONOAK:

Negociado de información y documentación: 848 426616 - 848 426516 - 848 426400

Sección de convocatorias: 848 423298 - 848 426069 - 848 426566 - 848 426296

Cuestiones tecnológicas e informáticas de tramitación: 948 013 555

OHARRA:

Hau leku aldatze-lehiaketa arautzen duen ebazpenaren laburpen bat da. Norberaren ardura da ebazpena ere argi begiratzea.